

**EZ DUT BESTE ZEREGINIK
HURA MAITATZEA BAIZIK**

Perfekzioan, santutasun-bidean, goren mailara iritsitakoan izenburuko ideia hori dakar san Joan Gurutzekok, *Kantu Espirituala B*-ko 28. kantan.

Joan Gurutzekok, egiaz bizitza espiritualari ekin nahi dionari, ez dio bide gozorik ez errazik aurrean jartzen. Alderantziz: aldapa latza igotzeko, gau iluna igarotzeko, Jainkoa ez den guztiari uko egitea, ezereztea, hustutzea, biluztea, itsatsiz doakigun lohiez garbitzea... Baina, itxura guztien kontra, ez da ezezkoa haren doktrina. Lehen aldian bai, baina gero baiezkoa da dena. Asmoz, hasieratik da baiezkoa, ederra, itxaropentsua, Maitearen bila abiatzen delako. Baina Maitea ezkutatu egiten zaio: *Non ezkutatu zera, / ene maitea, ni utzirik saminez? / Alde orein antzera / niri zauri eginez; / bila irten eta joana zinen ibes.*

Bilaketa honetako gorabeherak, aldiak eta aldarteak agertzen dizkigu kantetan eta prosazko azalpenetan barrena, eta Jainkoak arimarekin darabilen irakasbidea, pedagogia, ezin hobeki azaltzen. Joan Gurutzekok kanta bakoitza osorik jartzen du lehenengo eta gero, bertso-lerroa jartzen du, lerroz lerro azaltzeko. Kanta bakoitzari sarreratxoa egiten dio: “Anotación para la canción siguiente” jartzen du gaztelaniaz (*Hu-*

rrengo kantari oharpena). Horrela joango da azalduz kanten esanahia, arima espiritualen ibilbiderako.

Baina *Kantu Espirituala B*-ko 28. kanta hautatu nahi izan dugu oraingo *Karmel* honetarako. Zergatik hautatu hau? Eulogio Patxok Monte Carmelo argitaletxerako prestaturiko argitalpenari jarraitzen diogu, gehienbat, euskaraz egiten ari garenerako; baina kontuan hartzen dugu Espiritualidad argitaletxerako Jose Vicente Rodríguez eta Federico Ruiz Salbadorrek prestaturikoa ere. Hauek prestaturikoan azpiko ohar bat dator kanta honetan (28.enekoan). Euskaraz jarririk hau dio ohar horrek:

“28. kantak emaztearen esku-hartze osoa adierazten du maitasun bat-egitean. Teresatxo Lisieuxkoak maiteen zuena zen, bertso hauetan bere esperientzia ikusten baitzuen eta bere maisuaren, Joan Gurutzekoren, erretraturik hoberena. Kanta honek eragiten digun betetasun-sentimendua, ahapaldian barrena lerroek agertzen duten ordenari eta progresioari dagokiona da, hiru une agertuz: 1) zuzeneko baieztapena (1. eta 2. lerroak); 2) baieztapena indartzea, oztopoak baztertuz (3. eta 4. lerroak); 3) sintesia, ezezkotik baiezkora (5. lerroa). Azken lerro hau *Kantu Espiritualaren* izenburuaren oihartzuna da: ‘*Maite-jardueraz* ari diren Kantak’ dio haren izenburuak”.

Jar dezagun 28. kanta hau itzulpenean dugun era berean, aurreko oharpen eta guzti:

HURRENGO KANTARI OHARPENA

“1. Baina Jainkoa ez dela maitasunaz baino beste ezertaz baliatzen esan genuenez gero, ongi izango da kanta azaldu aurretik honen arrazoia ematea: eta hauxe da: gure egintza eta lan guztiak, handienak izanik ere, Jainkoaren aurrean ez direla ezer; haietan ezin diogulako ezer eman, ezta haren desira bete ere,

haren desira arima goratzea baita. Beretzat ez du honelakorik ezer desira, ez baitu horien beharrik, eta horregatik, zerbaitez baliatzen bada, arima goratzeko izaten da; eta hura gehiago gora dezakeenik hura berarekin berdintzea baino besterik ez denez gero, horregatik arimak maita dezala nahi du besterik ez; maitasunaren berezitasuna, izan ere, maitatzailea maite duenarekin berdintzea da. Beraz, arimak hemen maitasun bete-betea duenez gero, horregatik deitzen zaio Jainkoaren Semearen Emaztea; horrek harekin berdintasuna esan nahi du, eta maitasunezko berdintasun horretan bienak diren gauza guztiak elkarrenak dira, Senarrak berak bere ikasleei esan zienez (Jn 15, 15): *Zuei neure adiskide deitzen dizuet, neure Aitak jakinarazitako guztia adierazi baitizuet*. Beraz, kantak honela dio:

28. KANTA

*Arima hor erabat,
haren zerbitzura dena emanik;
ganadurik ja ez daukat,
ez beste zereginik
jadanik, hura maitatzea baizik.*

AZALPENA

2. Aurreko kantan arimak, edo hobeki esan, Emazteak, oso osoan eman zitziola Senarrari beretzat ezer gorde gabe zioenez gero, orain kanta honetan dio hori betetzeko zer era erabili duen, esanez, honezkero bere arima, gorputza, ahalmenak eta trebetasun guztia, ez duela gauzetan erabili, bere Senarraren zerbitzurako direnetan baizik; eta horregatik, dagoeneko ez dela ari bere irabaziaren bila, ez dabilela bere atseginen atzetik, ezta ez dela okupatzen beste gauzetan, kanpoko arazoetan eta Jainkoarekin zerikusirik ez dutenetan; eta Jainkoarekin berarekin ere honezkero ez duela beste estilorik ez harre-

man-erarik, maitasunezkoa baizik, lehenengo harreman guztia maitasun-harremanarekin trukatu eta aldatu baitu, orain esango duenez.

Arima hor erabat.

3. Arima erabat hor sartua dela esatean, maitasunezko bat-egite hartan Maiteari egin zion bere buruaren eskaintza esan nahi du; han geratu zen arima bere ahalmen guztiakin, adimen, borondate eta oroimenarekin, haren zerbitzura emana, adimena, haren zerbitzurik handieneko diren gauzak ulertzeko, eta ulertu ondoren egitez betetzeko; borondatea, Jainkoari gogoko zaion guztia maitatzeko eta gauza guztietan borondatea Jainkoagana zaletzeko; eta oroimena, haren zerbitzurako denean eta hari gogokoen zaionean arduraz jokatzeko. Eta gehiago dio:

Haren zerbitzura dena emanik.

4. “Dena” esatean, aberastasun guztia, arimaren alde sentitiboari dagokion oro esan nahi du hemen; alde sentitiboan sartzen da gorputz osoa beronen zentzumen eta ahalmenekin, bai barrukoekin eta bai kanpokoekin, eta berezko trebetasuna, hau da, lau grinak, zaletasun naturalak eta arimak dauzkan gainerako guztiak; hori guztiori Maitearen zerbitzuan jarririk daukala dio, baita aurreko bertso-lerroan esan berri ditugun arimaren alde arrazional eta espirituala ere. Gorputzak Jainkoari dagokionez tratatzen du, barruko eta kanpoko zentzumenak, haien jarduerak Jainkoari zuzendurik gobernatzen eta gidatzen ditu, eta arimaren lau grinak ere Jainkoari lotuak ditu, ez baitu atsegin hartzen Jainkoagan baizik, ez baitu itxaropenik ezertan Jainkoagan izan ezik, Jainkoari baizik ez baitio beldurrik, ez baitu saminik Jainkoaren arabera ez denik; eta beraren zaletasun eta ardura guztiak Jainkoagana doaz soilik.

5. Eta aberastasun hau guztiau Jainkoagan erabilia eta hari zuzendua du (arima konturatzen ez dela ere), aipatu ditugun

aberastasun honen alde guztiak, lehen mugimenduetan Jainkoagan eta Jainkoagatik jardutera jotzeraino; adimena, borondatea eta oroimena berehala baitoaz Jainkoagana, eta bihotzaren joerak, sentipenak, desirak, barne-egarriak, itxaropena, poza eta aberastasun guztia berez, berehala makurtzen baitira Jainkoagana, diodanez, arima Jainkoagatik egiten duela konturatzeko ez bada ere. Beraz, sarri-sarri, arima honek Jainkoagatik jokatzeko du, eta hura eta haren gauzak darabiltza adimenean, harengatik ari dela pentsatu eta gogoratu gabe; jokaera hartan duen usadioak eta ohiturak, izan ere, hartan oharkabe eta arreta gabe jokatzera darama, baita hasieran izan ohi zuen berotasun hura gabe jokatzera ere. Eta aberastasun hau guztia, esan den bezala, jada Jainkoagan erabilia dagoenez gero, nahitaez izan behar arimak hurrengo bertso-lerroan esaten duena ere, hau da:

Ganadurik ja ez daukat.

6. Hau esatea bezala da: honezkero ez nabil neure gozotasun eta gutuzien atzetik, zeren, Jainkoagan jarriak eta berari emanak izanik, arimak ez baititu honezkero bazkatzen ezta berretzat gordetzen ere. Eta ez du esaten ganadurik jada ez daukala bakarrik, gehiago ere badio:

Ez beste zereginik.

7. Arimak, emate honetara, bere buruaren eta daukan guztiaren eskaintza Maiteari egitera iritsi arte, mesede egiten ez duten zeregin ugari izaten zituen, eta zeregin haietan bere gogo eta besteena asetzen saiatzen zen; esan genezake, akastun ohiturak adina zeregin izaten zituela; ohitura hauek izan ditezke, adibidez, sartu-sartuak zituen alferreko gauzez hitz egitea, alferreko gauzak buruan erabiltzea eta baita egitea ere, arimaren perfekzio-bidetik jo beharrean; beste zalekeria batzuk ere izaten zituen besteen nahiei begira, adibidez, harrokeriak, kunplimenduak, zurikeriak, itxurakeriak, besteen aurrean ongi

geratu nahia eta bere gauzekin jendeari atsegin ematea, eta alferreko beste gauza asko, hartan arreta, bihotza, ekintza eta, azkenik, arimaren aberastasuna jarritz, jendeari gustua ematearren. Orain ez duela zeregin horietatik ezer dio berak, honezkero bere hitz, pentsamendu eta egintza guztiak Jainkoarenak direlako eta Jainkoagana zuzenduak, lehen izaten zituzten inperfekziorik gabeak. Beraz, hau esango balu bezala da: honezkero ez nabil neure buruari ez beste inori atsegin eman nahirik, ez naiz ari alferreko denbora-pasan ezta munduko gauzetan ere,

jadanik, bura maitatzea baizik.

8. Hau esango balu bezala: honezkero zeregin hauek guztiak Jainko maitasunaren jardueran jarriak dira, hau da: nire gorputz-arimen baliabide guztiak, oroimena, adimena eta borondatea, barruko eta kanpoko zentzumenak eta alde sentsitibo eta espiritualaren zaletasunak, den-dena mugitzen da maitasunagatik eta maitasunean, dagidan guztia maitasunez eginik eta sufri dezadan guztia maitasun-zaporez sufriturik. Hori adierazi nahi izan zuen Davidek (Sal 58, 10) hau zioenean: *Zuretzat gordeko dut neure indarra.*

9. Kontuan izan behar da, arima egoera honetara iristen denean, alde espiritualaren eta sentsitiboaren jarduera osoak, jardutean nahiz sufritzean, era batera nahiz bestera izan, beti eragiten diola Jainkoaren maitasun eta gozotasun handiagoa, esan dugunez; eta otoiitz jarduera eta Jainkoarekiko harremana bera ere, lehen beste gogoeta eta modu batzuk izaten zituena, orain oso-osorik da maitasun-jarduera. Beraz, bai bere harremana mundu honetako gauzetan izan, bai espirituzko gauzetan izan, beti esan dezake arima honek: [ez da] *jadanik, bura maitatzea baizik.*

10. Zorioneko bizi-tza, zorioneko egoera, eta zorionekoa horraino iristen den arima!, guztia baitzaio maitasunerako bide eta

ezkon-dohain eta atsegin, Kantarik Ederrenean (7, 13), Emazteak esan baitiezzazkioke, zinez, Jainko-Senarrari, maitasun garbiz esaten dizkion hitz haiek: *Zuretzat gordeak nituen sagar zahar eta berriak*; hau esango balu bezala: Ene Maitea, latz eta nekagarria nahi nuen neuretzat zugatik; ezti eta gozoa, berriz, zuretzat.

Baina bertso-lerro honetan esan nahi dena, ezkontza espiritualeko egoera honetan arima, ohi denez, Jainkoaren maitasunean bat eginik dagoela, hau da, borondatez une oro Jainkoa maitatzen ari dela”.

Lirika eta deskripzio aldetik, batzuen ustez, hau da osoena, mamitsuena. Gero, beste kanta batzuetan ere, gozo eta ezti adierazten dira bat-egite eta maitasun goren horren hainbat xehetasun. Maitasunaren barne-deia, elkarrekiko gozamina. Esaterako, 36. eta 37. kantetan. Hona biak, hurrenez hurren: (36.a) *Goza dezagun, Maite, / ederretsiz zure itxura iaioan / mendi zein mendi arte / ur garden jarioan; / sar gaiten barneragoko giroan.* (37.a) *Eta gero joango / gara goi-goiko baitz-kobetara; / gorderik daude ondo; / eta han sartuko gara, / eta mingrana-ura edango gogara.*

Luis Baraiazarra Txertudi